

Urko mendiko txirrindulariak

Mendiko bizikleta zaleak biltzen dituen talde honek 20 urte inguru ditu. Igandero irteerak egiten dituzte eta dagoeneko Santixauetako irteera prestatzen hasiak dira. Aurreko urteetan bezala, 160 lagunetik gora Ermura hurbiltzea espero dute.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Duela 20 urte jaio zen. Gure aurretik ez zegoen 'mountain bikeko' talderik herrian, gaur egun badira beste batzuk.

- Zenbat kide zarete?

34 lagun gara, 19 eta 51 urte bitartekoak denak. Gazteek lekukoa hartzea nahi dugu, taldeak jarraipena izan dezan eta momentuz, horrela izango dela dirudi. Pozik gaude.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Kirola egitea eta bizikletaz eta gure inguruneaz disfrutatzea dira gure helburuak. Ez dugu lehiatzen.

- Zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Urte osoan zehar irteera herrikoiak egiten ditugu, igandero. Plazan elkartzen gara, 9.00etan, eta gure webgunean aurretik iragarritako ibilbidea egiten dugu (www.orkobtt.com). Edozeinek har dezake parte mendi martxa haue-
tan, bizikletan gutxieneko trebetasuna



badu, jakina, eta taldekoak guztion erritmora moldatzen gara, inor atzean gera ez dadin. Horretaz gain, urteko azken domekan Urkora igotzen dugu eta tontorrean turroia jan eta xanpaina edaten dugu. Ez diogu eguraldiari erreparatzen: aurten elurra egon da tontorrean eta hala ere ez dugu hutsik egin. Batzuk oinez etortzen dira gurekin.

- Santixauetan parte hartzen duzue?

Bai, jai egitarauaren barruan ibilaldi gogor bat prestatzen dugu urtero. Aurten 16.a egingo dugu eta, parte-hartzaile kopuruari erreparatuta, oso arrakastatsua dela aitortu behar dugu. Iaz 164 lagun bildu ginen eta batzuk Gasteiz edo Burgosetik etorri ziren ibilaldi hura egitera. Iazko martxa Elgetatik egin genuen eta aurtengoa Urkotik izango da. Bakoitzak modu ezberdinean hartzen ditu irteera horiek, batzuk

euren burua neurtzera joaten dira eta besteek afizio moduan hartzen dute.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?

Urtean bizpahiru bider biltzen gara, kideren baten elkarte gastronomikoan, eta Santixauetako ibilaldia prestatzeko egiten ditugu bilera horiek. Lasterketak lan handia eskatzen du (ibilbidea aukeratu eta definitu, markatu txirrindulariak ez galtzeko...) eta egunean bertan 10 bat boluntario inguruk laguntza eskaintzen digu. Diru-laguntza jasotzen dugu ibilaldi hau antolatzeko eta parte hartzaileek oparitxoa jasotzen dute bukaeran.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Azken lau urteetan Alfonso Dávila da elkarteko lehendakaria eta interesa duenak berari deitu diezaioke (664464492 / 600893171).

Dorleta Vidal

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78